

azken portuko tabernan • jon martin

Ekaitz Goikoetxea

NORTASUN AGIRIA

1980ko abuztuaren 28an jaio nintzen, Beasainen. Alkartasuna Lizeoan egin nintuen lehen ikasketak, eta Txindoki Institutura joan nintzen ondoren. Gaur egun Euskal Filologia ikasten dihardut, Gasteizen. Bertsolaria naiz, eta irakurtzea eta idaztea dut maite. Laburbiltzeko, euskararen maitalea naiz.

Ekaitz Goikoetxea euskarak bizi du. Bat-batean nahiz idatziz, bertsoak egiten iaioa da, bere-berea duen estilo horretan. Bertsoa ez ezik, prosa eta poesia ere jorratzen ditu Ekaitzek. Azken geltokira iristen ari den Bertsolari Txapelketa Nagusiko bidaiarietako bat izan denez, bere iritzi eta esperientziaren berri galdetu diogu.

■ Nola hasi zen bertsotan Ekaitz Goikoetxea?

Hurtzaindegian bakartia eta kantaria nintzela esan didate. Gurasoek ere txikitxikitatit kantak eta ipuinak kontatzen zizkidaten, eta horrek eragina izan du nigan. Geroago, ikastolan, irakasleek idazlanak etxeko lan gisan bidaltzen zizkidaten aldietako batzuetan, bertsoak entregatzen nizkien. Maisuek, horrekin ohar-tuta edo, bertso eskolara joatea proposatu zidaten. Mikel Mendizabalekin hasi nintzen, Goierriko bertso eskolan, bertsoak bat-batean botatzen. Bertsopaperak idazten ere hasi nintzen, eta sorta bat sariketa batera bidali nuen lehen aldian, saritua izateko zortea izan nuen. Txapelketak garrantzitsuak dira, urte guztian egindako lana erakusteko balio dutelako. Gaur egun, bertso eskoletako irakasle eta ikasle naiz.

■ Zein helburu duzu bertsolaritzan?

Nire helburu nagusia gozatzea da, idatziz nahiz kantuan. Orain arteko txapelketetan ondo ikusi dut neure burua, eta hurrengo Euskal Herriko txapelketako finalean sartzea da nire helburuetako bat.

■ Zu ere bertsolaritzatik kanpoko alorretan ere jarduten zara, beraz, hainbat bertsolari bezala.

Bai. Bertsoak euskara maitatzen erakusten dizu, eta hizkuntza maila ona lortzen. Nik, Euskal Filologia ikasteaz gain, irratan ere jarduten dut, eta baita aldizkari batean idazten ere. Egunen batean liburu bat argitaratu nahi nuke; materiala



▲ miren saez

«Txapelketa ezin da izan bertsolarien plaza bakarra»

behintzat badaukat argitaratzeko. Egia esan, txiki-txikitatit sarituak izan diren bertsopaperak argitaratzea gustatuko litzaidake. Nire bertsoerak aldaketa asko izan ditu hasi nintzenetik hona, joskeran, errimetan... eta progresioa ikusteko egokia izan litekeela uste dut.

■ Bertsolaritzak gainbehera izan duela uste duzu?

Nik uste dut entzule aldetik beherakada izan duela. Gaur egun plazan 200 edo 300 entzule biltzen dituzten saioak arrakastatsutzat har litezke; duela urte batzuk, berriz, frontoiak bete egiten ziren, 1.500 pertsona izaten ziren. Orain, txapelketak bakarrik mugitzen du jende kopuru hori saioetara. Nolabait, txapelketaren arrakasta plazetara eramateko modua aurkitu behar da.

pelketak bakarrik mugitzen du jende kopuru hori saioetara. Nolabait, txapelketaren arrakasta plazetara eramateko modua aurkitu behar da.

■ Aurtengo txapelketa azkenetan da. Zer azpimarratuko zenuke?

Ni pozik nago, Sustrai Colina finalean delako. Inor gutxi sinesten zuen beragan, eta nik konfiantza handia izan dut berarekin hasiera-hasieratik. Hala ere, nik ere ez nuen pentsatzen Belodromora iritsiko zenik. Txapelketa berak irabaztea gustatuko litzaidake, baina iruditzen zait lehengo buruan geratuko dela txapela. Andoni Egaña oso ondo prestatuta dago

bat-batean

- **Kantu bat?** Xalbadorren heriotza.
- **Abeslari bat?** Imanol.
- **Bertsolari bat?** Xalbador.
- **Eredu bat?** Sustrai Colina.
- **Amets bat?** Bakea.
- **Bertute bat?** Egokortasuna.
- **Akats bat?** Alferra izatea.
- **Desio bat?** 2005eko finalean sartzea.
- **Damua?** Egindako guztia zerbaitegatik egin dut.

aurten ere. Finala lehiatua izango da, baina bigarren postuan geratzeko bertsolari bat esan behar banu, Mendiluze esango nuke. Asko identifikatzen naiz berarekin. Aurten Iturriaga, Mendiluze, Elortza, Lujanbio, Maia eta Irazuren belaunaldia sartu da finalean, baina uste dut hementik lau urtera gure belaunaldiaren txanda izango dela. Aurtengo txapelketan ere finalerdietan frogatu dute belaunaldi honetako bertsolari batzuek zertarako gai diren: Fredi Paia, Nerea Elustondo... Orain akatsetatik ikasi beharko dugu, eta hemendik lau urtera saiatu. Hala ere, arazo bat dugu bertsolari gazteok: plazarik ez dugula. Eta, nire ustez, plazarik gabe ez dago aurrera egiterik. Aukera bat eman behar zaie bertsolari gazteei, eta antolatzaileek zeresan handia dute horretan; saioetan, punta-puntako bertsolariei ez ezik, gazteei ere toki egin beharko liekete. Saioaren maila ez litzateke hainbeste jaitsiko. Txapelketa ezin da izan bertsolarien plaza bakarra.

■ Bertsolaritzan inoiz politika aldetik bazter-tuta sentitu zara?

Ez. Gauza garbia da bertsolari gehien ideologia zein den. Alde horretatik, asko poztu ninduen Karlos Aizpuruak EGUNKARIAN idatzi zuen artikulua. Artikuluan Euskal Herriko gatazkaren alde guztiak islatzeko proposamena egin zuen. Nire ustez, Euskal Herriko egoeraren erdia islatzen da, baina beste erdia ez. Gaietan sarritan aipatzen dira presoak, Aznar, Sanz... baina egoera osoa nekez islatzen da. Artikulu hura idatzi eta hurrengo egunean, Bilbon, Iturriaga Beasainen hildako bi ertzainen aldeko manifestaziora joandako herritarraren papelean jarri zuten, eta buru-belarri sartu zen paperean. Nire ustez, era horretako gaiak leku egin behar zaie; bestela, gure sormena mugatzen dugu eta zale posibleak uxatu.

zirika



sustrai colina

A-8an barrena

Hendaia, Oiartzun, Donostia, Zarautz, Elgoibar, Durango. Arribatu gara urteroko hitzordura, eta, urtero legez, mila itzuli eman ditugu autoari zirrikitu bat kausitzeko. Karpa aitzinera iritsi garenean, eta aurrez erosketen zerrenda ontsa finkatua bagenuen ere [amatxi Eroskira joaten denean bezala], bisitari zientifikoki ekin diogu, apaiz handienek baino metodo gehiagorekin.

Gaurko egunak kontsumoaren gailurra iristea du xede. Denek husten dugu patrika: presoen aldeko zozketa txarteletan, hautsak jango di-

tuen liburuetan, Eguberrietako erregalietan.... Gabonetako opariez ari naizeno, ezingo dut ukatu ez direla denak in-

tentzio berarekin egiten. Lehenik eta behin, guk eta guretzako egiten ditugunak daude. Hauek gozamen pertsonala aldarrikatzen dute eta normalean azken arnasa arte erabiltzen ditugu, ez beste munduko zerbaitek direlako, geure sosekin ordaindu ditugulako baizik. Bestalde, opari interesatuak daude. Hau da, lagunei edo ingurukoei egiten diezkiegunak, segur aski, haiek baino gehiago erabiliko ditugun arren.

Kontuak kontu, nik egin ditut neure erosketak. Txokolatezko dinamita Bar Puerton meriendatze-

ko egokia iruditu zait, eta Kirmen Uriberen poemek afaritarako balioko didate. Lagunak haserretu zaizkit, *Lagun izoztuari* arreata berezirik eskaini ez diodalako, baina nik izotza udan bakarrik dut laketa. *Titanic*-ekin gauza bera pasatu zitzaidan, denek ikusi zutelako ez nuen ikusi. Kalapitak kalapita, haiek erosi dute, nik ez.

Berbaron derrigorrezko tragoxka egin ondoren, pozik sartu gara autora. Durango, Elgoibar, Zarautz, Donostia, Oiartzun, Hendaia. Iritsi gara. Autopistan liburuetan baino diru gehiago gastatu izanaren sentsazioak irribarre desesperatu bat ebatsi badie ere, lagunak serio jarri zaizkit; Sarrik ez die libururik firmatu.